



Kimika Fakultatea EHU

Euskara Plana

2026-2029



KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

KIMIKA Fakultatea

Euskara Plana 2026/2029 - Oinarriak

0. Sarrera

Kimika Fakultateak Eusko Jaurlaritzak ematen duen BIKAIN, Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu zuen 2019an. Ziurtagiri horrek esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatzea eta aitortzea du helburu. Kimika Fakultateak oinarritzko maila lortu zuen urte horretan. Kanpo-ebaluazio prozesuan honako gomendio hau jaso zuen Kimika Fakultateak: Euskara Plan propioa garatzea.

Horrela, Kimika Fakultateko Euskara Batzordeak euskararen erabileran eman beharreko aurrerapausoak identifikatu ondoren, Euskara Plana garatzeko ardura hartu du bere gain, eta dokumentu honek plan hori biltzen du. Bi ataletan dago antolatuta:

1. Lehen atalean, Kimika Fakultateko Euskara Batzordearen helburua eta osaera aipatzen dira.
2. Bigarren atalean, 2026/2029 aldirako Kimika Fakultatearen Euskara Planaren oinarriak osatuko dituzten ardatzak eta helburuak zehazten dira, baita horiek lortzeko planteatzen diren ekintzak eta helburuak lortu diren edo ez determinatzeko adierazleak ere.

Kimika Fakultatearen Euskara Plana 2026/2029 dokumentua prestatzeko, hainbat dokumentu hartu dira oinarri. Horien artean, EHUK unibertsitate osoarentzat finkatutakoak ditugu lehenik:

- Euskal Herriko Unibertsitatearen estrategia plana 2026-2028 (<https://plan-estrategikoa.ehu.eus/eu/>).
- Euskal Herriko Unibertsitateko euskararen IV. plan gidaria 2023-2027 (<https://www.ehu.eus/documents/d/euskara/euskararen-iv-plan-gidaria-2023-2027>).

Bigarrenik, Kimika Fakultatearen dokumentu propioak hartu dira kontuan:

- Kimika Fakultatearen estrategia plana.
- Kimika Fakultatearen kalitate politika.
- Bikain Ziurtagiriak 2020an Kimika Fakultateari helarazitako ebaluazio-txostena.

1. Kimika Fakultateko Euskara Batzordea

Egitekoaren definizioa:

Kimika Fakultateak, oro har EHUK duen bezala, gaur egungo euskal gizarteak dituen beharrei behar bezala erantzuteko, kualifikatutako profesionalak prestatzeko betebeharra du. Zentzu horretan, euskal gizarteak aditu eta profesional euskaldunak behar ditu, hizkuntzaren normalizazioan lan egingo dutenak. Hori dela eta, Kimika Fakultateko Euskara Batzordearen egitekoa izango da (kalitatezko) euskararen erabilera sustatzea Fakultateko alor guztietan, beti ere EHUK ezarritako irizpide, gidalerro eta araudiarekin lerrokatuta.

Batzordearen osaera:

Akesolo Muguruza, Urtzi; Aranzabe Urruzola, Maria Jesus; Berasarte Urroz, Irati; Berregi Abalde, Iñaki; Cepeda Ruiz, Javier; Etxebeste Juarez, Oier; Galparsoro Larraza, Oihana; Gomez Bengoa, Enrique; Iriarte Ormazabal, Marian; Martinez de Lahidalga Azkue, Nerea; Narvarte Portugal, Arantzazu; Zabala Lekuona, Andoni.

2. Kimika Fakultatearen Euskara Planaren ardatzak

Fakultateko Euskara Plana egituratzeko, UPV/EHUren Euskararen IV. Plan Gidariaren egitura hartu da oinarri gisa eta Fakultatearen errealitate eta beharretara doitu da:

I. ardatza: erabilera eta presentzia

Helburua:

I.I. Kimika Fakultatea osatzen dugun kolektibo desberdinen artean euskararen erabilera eta presentzia bultzatu.

Ekintzak:

I.I.I. Euskararen erabilera (formala nahiz informala) aztertu, eta jarraipena egin.

I.I.II. Euskaraldian parte-hartzea sustatu.

I.I.III. Kimika Fakultatearen izenean korrika babestu, eta parte-hartzea sustatu.

I.I.IV. Fakultatean euskararen eguna ospatzen jarraitu.

Helburua:

I.II. Jendaurreko ekitaldi akademikoetan (graduazioa, esaterako) euskara hizkuntza bakarra edota hizkuntza nagusia izango dela bermatu.

Ekintzak:

I.II.I. Ekintzen antolatzaileei euskararen presentzia bermatzeko eskatu.

I.II.II. Antolatutako ekintzetan euskararen erabileraren jarraipena egin.

Helburua:

I.III. Atezaintzan eta idazkaritzan euskararen erabilera bermatu.

Ekintzak:

I.III.I. Euskararen erabilerarako baliabideak eta tresnak eskuragarri jarri.

I.III.II. Praktika egokiak identifikatu, eta horiek partekatzea sustatu.

Helburua:

I.IV. Fakultatean eskaintzen diren beste zerbitzuetan euskararen erabilera sustatu.

Ekintzak:

I.IV.I. Zerbitzuak eskaintzen dituztenei egunerokotasunean erabilgarriak diren esamoldeen/hitzen liburuxka helarazi eta erabiltzera animatu.

Helburua:

I.V. Ikasleen arteko euskararen erabilera soziala indartu, eta pertsona zein profesional gisa (izango) duten erantzukizun sozialaren pertzepzioa aktibatu.

I.VI. Web-orrialdean, sare sozialetan, karteletan eta, oro har, edozein komunikazio-kanaletan, euskararen erabilera lehenetsi.

II. ardatza: kudeaketa

Helburua:

II.I. Eguneroko funtzionamenduan (sailetan eta batzordeetan, esaterako) erabiltzen diren dokumentu guztiak euskaraz eskuragarri daudela bermatu.

Ekintzak:

II.I.I. Sail eta batzordeetan erabiltzen diren dokumentu guztien bilketa egin.

II.I.II. Euskaraz eskuragarri ez dauden dokumentuak, euskaraz sortu.

Helburua:

II.II. Fakultateko organo guztien batzarretan euskararen erabilera bermatu.

Ekintzak:

II.II.I. Aktak modu elebidunean jaso, eta euskararen erabileraren ehunekoa (%) adierazi.

II.II.II. Itzulpen- eta kontsulta-baliabideak eskuragarri jarri.

III. ardatza: irakaskuntza

Helburua:

III.I. Kimikako Graduan euskarazko eskaintza bermatzen jarraitu.

III.II. Fakultatean eskaintzen diren gainerako titulazioetan euskarazko eskaintza sustatu.

III.III. Titulua lortzen den momentuan, ikasleek jardun profesionalerako beharrezko hizkuntza-gaitasun maila izango dutela bermatu.

Ekintzak:

III.III.I. Testuen kalitate linguistikoa (zuzentasuna eta egokitasuna) berrikusteko (edo hobetzeko) baliabideak eta tresnak eskuragarri jarri, eta horien erabilera sustatu.

Helburua:

III.IV. Graduako irakasgai guztietan kalitatezko euskarazko ikasmateriala egongo dela bermatu.

Ekintzak:

III.IV.I. Fakultateko irakasleen artean Euskararen Errektoreordetzak ikasmaterialak euskaraz ekoizteko eta itzultzeko dituen baliabideen informazioa ahalik eta gehien zabaldu.

III.IV.II. Erreferentziazko errekurtsoak eta terminologia-bankuak zabaldu irakasleen artean.

Helburua:

III.V. Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatu.

III.VI. Geletan eta praktika-laboregietan, euskararen erabilera bermatu.

III.VII. Lanbide-heziketako ikasleei euskarazko praktikak eskaini.

III.VIII. GrALak, MALak eta doktoretza-tesiak euskaraz egitea sustatu.

Ekintzak:

III.VIII.I. Lan akademikoak euskaraz egiteko eskaintza sustatu.

III.VIII.II. Testu akademikoak idazten laguntzeko baliabideak eskuragarri jarri.

III.VIII.III. Euskaraz ekoiztutako lan akademikoek (euskararen normalizazioan) egiten duten ekarpenari buruzko ekimenak (jardunaldia edo hitzaldia...) antolatu.

IV. ardatza: ikerketa eta transferentzia

Helburua:

IV.I. Fakultatean egiten den ikerketaren difusio eta gizarteratzea euskaraz egiten dela bermatu.

Ekintzak:

IV.I.I. MZT (Materialen Zientzia eta Teknologia) eta Ikergazte bezalako kongresuetan parte-hartzea sustatu.

IV.I.II. Euskarazko aldizkarietan argitaratzea sustatu, Ekaia aldizkarian besteak beste.

IV.I.III. Zientzia Astean parte-hartzea sustatu.

Helburua:

IV.II. Enpresekin egiten diren bilera eta hitzarmenetan euskararen erabilera sustatu.

IV.III. Kanpotik datozenei eta bertako elebazarrei euskararen berri eman eta haien artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatu, betiere gaitasunaren arabera eta progresiboki.

Ekintzak:

IV.III.I. Pertsona hauentzat urtean zehar ongietorri saio bat edo beste antolatu euskara eta euskal gizartearen berri emateko, eta egunerokoan erabilgarriak izango diren esamoldeen/hitzen liburuxka emateko.

V. ardatza: orientazioa eta dibulgazioa

Helburua:

V.I. Bigarren Hezkuntzako ikasleen orientazioa euskaraz emango dela bermatu.

Ekintzak:

V.I.I. Dagoneko antolatzen diren ekintzak (hala nola, egokitu, ate irekiak, bisita gidatuak...) antolatzen jarraitu eta euskarazko komunikazioa lehenetsi.

Helburua:

V.II. Komunikabideetan euskarazko dibulgazioa sustatu.

Ekintzak:

V.II.I. Norteko Ferrokarrila eta Baipasa bezalako saioetan parte hartzen jarraitu.

Helburua:

V.III. Sarea euskarazko zientzia-edukiekin aberasten jarraitu.

Ekintzak:

V.III.I. Euskarazko Wikipediako artikuluak idaztea edo itzultzea sustatu.

V.III.II. Euskarazko bideo-tutorialak sortzea sustatu.

Fakultateko Euskara Planaren ardatzetan definitutako helburuak betetzen direla ziurtatzeko, 1. taulan hainbat adierazle zenbatu dira. Euskara Plana martxan jarriko den lehen urtean (2026/2027 ikasturtean) adierazle horiek emandako emaitzak zenbatuko dira. Urtetik urtera, helburua izango da adierazle horien balioak hobetzea edo, behintzat, berdintzea.

1. taula.- Ardatz guztien helburuak betetzen direla ziurtatzeko adierazleen taula.

Zenb.	Ardatza	Adierazlearen izenburua	2026/2027
1	I	Euskaraldian parte hartutako Fakultateko kideen kopurua	
2	I	Euskara sustatzeko egindako jarduera kopurua (Korrika babestea, euskararen eguneko ekitaldia, etab.)	
3	I	Graduazio-ekitaldian euskararen erabileraren ehunekoa	
4	I	Zerbitzua euskaraz eman zaiela adierazten duten erabiltzaileen kopurua	
5	I	Hizkuntza-arretarekin lotutako kexa edo gorabeheren kopurua	
6	II	Fakultateko organo desberdinetako bileretan euskararen erabileraren ehunekoa	
7	II	Euskaratzeke dauden dokumentuen ehunekoa	
8	II	Elebitasun faltagatik jasotako gorabehera edo eskaeren kopurua	
9	III	Kimikako Graduan euskaraz eskaintzen diren irakasgaien ehunekoa	
10	III	Fakultatean eskaintzen diren gainerako titulazioetan euskaraz eskaintzen diren irakasgaien ehunekoa	
11	III	Euskaraz ekoitzitako ikaskuntza-materiala	
12	III	Irakaskuntza kudeatzeko egiten diren bileretan, euskararen erabileraren ehunekoa	
13	III	Euskaraz eskainitako GrAL kopurua	

14	IV	MZT kongresuan parte hartutako ikertzaile kopurua	
15	IV	Ikergazten parte hartutako ikertzaile kopurua	
16	IV	Zientzia Astean parte hartutako kide kopurua	
17	IV	Euskaraz argitaratutako artikulua zientifiko kopurua	
18	V	Batxilergoko zentroetan egindako graduaren aurkezpenen artean euskaraz emandakoen ehunekoa	
19	V	Euskaraz argitaratutako dibulgazio-artikuluen kopurua	
20	V	Komunikabideetan euskaraz egindako elkarrizketa kopurua	
21	V	Orientazio- zein dibulgazio-jardueretan euskaraz egindako ehunekoa	
22	V	Wikipedian euskaraz sortutako (edo itzultako) artikulua kopurua	
23	V	Euskaraz sortutako bideo-tutorial kopurua	